



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: MAHASTIAREN EGOERA ARABAKO ERRIOXAN, 2016/07/22

Uztaileko hirugarren astea oso beroa izan da eta, horren ondorioz, laborea geratuta izan da, mahastiak ia ez baitu bilakaerarik izan denbora horretan. Beraz, mahastiaren egoera fenologikoan ez da aldaketarik izan: K egoeran (ilar neurriko aleak) eta L egoeran (mahats mordo itxia) jarraitzen du, eta horrek esan nahi du egun gutxi batzuetako atzerapena dakarrela iazko kanpainaren aldean.

Nolanahi ere, mahastiaren garapena normala da, baina nabarmendu beharra dago uztailaren 20an botatako harriak kalteak eragin zituela, nahiz eta oso esanguratsuak ez izan, Guardia, Lapuebla de Labarca eta Elciegoko zenbait gunetan.

Hain zuzen ere, asteazkenean, hilaren 20an, arratsaldeko lehen orduetan, ekaitzak euria eta kazkabarra ekarri zituen gehienez ere bi kilometro zabal zen zerrenda batera, eta gogorrago bota zuen leku batzuetan beste batzuetan baino. Lapuebla eta Guardia hegoaldetik sartuta, Errioxarekiko Ebrok egiten duen mugan, ekaitzak aurrera egin ahala kalte txiki samarrak eragin zituen, baina prezipitazio mota (ura edo kazkabarra) eta prezipitazioen gogortasuna oso bestelakoak izan ziren udalerrri batetik bestera, nahiz eta leku horiek bata bestetik oso hurbil egon.

Kalteren bat eragin zuen Ebrotik gertu dauden besteak beste Mezana eta Esperal udalerrietan, baina kazkabarrak orriak baino ez zituen eraman, edo masa begetatiboari edo mahats mordoiei eragin zien, hots, aleren bat puskatu zuen.

Inon ere ez da ikusi kalte konponezinik, edo ekoizpena edo kalitatea modu esanguratsuan murriztu dezakeenik, baldin eta mahats aleak puskatzeak, gero, onddoz kutsatzerik ez badakar behintzat. Hori gertatu ala ez honako bi faktore hauen mende egongo da: aurrerantzean izango den klimaren mende, batetik; eta mahastizainak tratamenduak egin ala ez, horren mende, bestetik.

Ohiko gomendioak: nola jardun kazkabarra bota ondoren

Gune jakinen batean kalte larriren bat ez badago behintzat, gure iritziz, ez da justifikagarria botritisaren aurkako berariazko produktuak erabiltzea, garestiak baitira. Dena den, baldin mahastizainak halako tratamendua egitea erabakitzen badu, mahats mordoetan baino ez luke eman beharko, eraginkorrago izan dadin eta, era berean, kostu txikiagoa izan dezan.

Baldin, epeen arabera, oidio edo zurinaren aurkakoak erabili behar badira, botritisaren kontrako eragina ere baduen produktua erabiltzea komeni den aztertu.

Oro har, kaltetutako aleak dituzten finketan, kobrea oinarri duten formulaziodun produktu orbaintzaileak erabili.

Nolanahi ere, oso adi ibili egun batzuetan, zer nolako bilakaera duen ikusteko.

Gainerakoan ez dago aipatzeko bestelakorik, eta uztailaren 15eko txostenean egindako gomendioei eusten zaie.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua